www.euskadi.net/ihitza
ingurugela

otoño 2012 udazkena

ihitza

Eskolako Agenda 21 zabaltzen Impulsando la Agenda 21 escolar

39

KREATIBITATEA

AGUR

La originalidad, el espíritu de innovación y la capacidad de mejora, en definitiva, la creatividad, se ha erigido en elemento fundamental de la educación actual. La importancia del capital humano y su potencial en el desarrollo de la colectividad se entienden como una prioridad en el devenir de las sociedades y esta preocupación no debe sino comenzar en los primeros años de vida de las personas.

Debemos tomar como imperativo que la enseñanza se marque como objetivo fomentar esas potencialidades en el alumnado, que la comunidad educativa en su conjunto los transforme en seres creativos. Como afirma Mauro Rodríguez en su libro 'Manual de creatividad', "la pobreza de estímulos origina reacciones rutinarias, perezosas y estereotipadas […]", algo que debemos evitar.

No podemos olvidar tampoco que el pasado mes de junio tuvo lugar en Brasil la cumbre Río+20, la cita más relevante en favor de la sostenibilidad y la protección del medio ambiente de cuantas se celebran en el planeta. En estas páginas encontrarás asimismo información puntual sobre este encuentro en el que Euskadi participó de manera activa.

Sormena, hau da originaltasuna, berritzeko espiritua eta hobetzeko gaitasuna, gaur egungo hezkuntzaren funtsezko osagaia da. Giza kapitalak garrantzi eta gaitasun handia du kolektibitatearen garapenerako; horregatik, gizartearen etorkizunari begira erabateko lehentasuna ematen zaio. Eta pertsonekiko kezka horrek haien bizitzako lehen urteetan hasi behar du.

Irakaskuntzak ikasleen gaitasun horiek sustatzea izan behar du helburu, ikaskomunitate osoak izaki sortzaile bihur ditzan. Mauro Rodríguezek "Manual de creatividad" izeneko liburuan dioenez, "estimulu-eskasiak errutinazko, nagikeriazko eta estereotipozko erreakzioak sorrarazten ditu", eta guk eragotzi egin behar dugu hori.

Ezin dugu ahantzi, orobat, iragan ekainean Rio+20 goi-bilera izan zela, Brasilen. Iraunkortasunaren alde eta ingurumenaren babesaren alde munduan den ekitaldietatik garrantzitsuena dugu, inondik ere. Orriotan topaketa horri buruzko informazio egokia ere aurkituko duzu. Izan ere, Euskadik aktiboki parte hartu zuen bertan.

Isabel Celaá
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua
Consejera de Educación, Universidades e Investigación

Pilar Unzalu
Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza sailburua
Consejera de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca

ihitza **Argitalpen Kontseilua/ Consejo Editorial:** ingurugela eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Hezkuntzako Zerbitzua / Servicio de Formación Ambiental del Gobierno Vasco

Erredakzioa / Redacción: Aspic eta ingurugela

Diseinua, maketazioa eta marrazkiak / Diseño, maquetación e ilustración: Bell Comunicación

Argitaratzailea / Edita: Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzu Nagusia / Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Inprimaketa / Impresión: MCC Graphics

ISSN: 1135-6391

IHITZAK ingurumen hezkuntzari buruzko eztabaidarako topagune bihurtzea du helburu. Hortaz, aldizkaria ez da bertan sinaturik agertzen diren artikuluen erantzule.
IHITZA pretende ser un foro de debate sobre educación ambiental y no se hace responsable de las opiniones expresadas en los artículos firmados.

Kontsumitu osteko paper birziklatua %100ean. /
Papel reciclado postconsumo 100%

Ihitzaren edizio digitalaren harpidedun izateko aukera duzu

Sar zaitez euskadi.net/ihitza helbidean eta klikatu harpidetzan (zure helbide elektronikoa baizik ez dizugu eskatuko) Albiste-aurrerapenak ez ezik, ale bakoitza argitaratzen denean abisua ere jasoko duzu

Ya puedes suscribirte a la edición digital de Ihitza

Entra en www. euskadi.net/ihitza y haz click en suscripción (sólo te pediremos tu correo electrónico) y recibirás los avances informativos y el aviso de publicación de cada número.

ingurugela

ihitza

www.euskadi.net/ihitza
posta-e: ihitza@ej-gv.es

EGON BADAGO

4 **Gaia zabaltzen**

Creatividad en la escuela: un desafío para la sociedad

Manuela Romo

6 **Jakinaren Gainean**

- Eskola Iraunkorren Ziurtagiria
- RIO+20 Garapen Iraunkorrari buruzko Nazio Batuen Biltzarra
- Energia iraunkorra, denon zeregina
- V. CLMNTK Biltzarra eta Climántica Saria
- Eskolako Agenda 21ek ateak ireki dizkio Europari

Zenbat Buru Hainbat Aburu

- Kulturaniztasuna, iraunkortasuna eta sormena Gasteizen (Olabide Ikastola)
- Ura aurrezteko kanpaina (Ipintza Institutua)
- Nengo Dango ereiteko teknika Bilbora heldu da (Ibaizabal Institutua)

9 **bitakora kaiera**

10 **GUZTIOK ELKARLANEAN**

PBL, ikasteko metodologia berria (San José de Calasanz, Santurtzi)

Beste esperientzia Batzuk

- Sormena ingurumenaren alde (Seber Altube Ikastola, Gernika)
- Gure ingurunea, gure inspirazioa (Jakintza Ikastola, Ordizia)

14 **EKIN ETA EKIN**

14. **Horma berdeak patioan**
Haur Hezkuntzako bigarren zikloa eta Lehen Hezkuntzako lehen zikloa

16. **Nolako ikastetxea nahi dugu?**
Lehen Hezkuntza

18. **Fantasia egia bihurtua**
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

20. **Kontrapublizitate grafikoa egiten**
Batxilergoa eta Lanbide Heziketa

22. **Sormena**
Denon Artean

24 **BIZKOR IBILI GERO**

Ideia guztiek balio dute

25 **Begiratokia**

'Future we want - future we need'
Rémi Parmentier

26 **KlasetiK AT**

- RECREA proiektua
- Hondakin, zaborrak berrerabiltzen
- Dekorazio naturala
- Pink Gorillas
- Greenpeaceren 100 iragarkirik onenak
- Itsasoko agurrak

28 **Eta Gurasoek zer?**

Las buenas prácticas tienen premio

29 **Baliabideak Eskura**

Bilboko Arte Ederren Museoa
Artearen eta ingurumenaren arteko konbinazioa

- **Unitate didaktikoak**
  - Nire sormena aprobetxatzen dut
  - Sormena garatzeko tailerrak
- **Bideoak**
  - Lipdub
  - Ikaskomunitateak
- **Liburuak**
  - Haur sortzaileak, irakaskuntza irudimentsua
  - Motibazioa eta sormena ikasgela
- **Webguneak**
  - Gizarte-sormena
- **Jokoak**
  - neuronilla.com

Creatividad en la escuela: un desafío para la sociedad

Manuela Romo
Universidad Autónoma de Madrid

"El aula debe ser un sitio seguro para equivocarse"

En los umbrales del tercer milenio vivimos en una sociedad compleja y globalizada: avances tecnológicos que se extienden por todo el planeta, movimientos migratorios, crisis económicas globales,… Vivimos además en la sociedad del conocimiento, donde el desarrollo económico y social está vinculado a la información. Hemos evolucionado más en la última centuria que en todos los milenios anteriores desde los orígenes de la cultura. La creatividad supone un reto para esta sociedad que demanda un nuevo tipo de ciudadano capaz de adaptarse a la novedad pero también de anticiparse, de contribuir al cambio. Un ciudadano de mente abierta y pensamiento flexible, preparado para definir nuevos problemas y buscar alternativas innovadoras de solución. Personas creativas, en suma. Es indispensable así mismo la creatividad en la gestión del conocimiento pues lo importante es la generación de nuevo conocimiento más que la reproducción del existente.

La responsabilidad de la educación en este proceso es enorme. La formación para la creatividad debe asentarse desde los inicios en el contexto familiar y escolar.

¿Qué es ser creativo?

He definido creatividad como una forma de pensar cuyo resultado es algo valioso y nuevo, a la vez. (Romo, 1997). Una forma de pensar que supone una gran sensibilidad a los problemas, la habilidad de reconocerlos, de saber formularlos, de enfocarlos desde distintos ángulos en la búsqueda de estrategias para su solución, que con frecuencia pasan por encontrar una analogía con ideas supuestamente alejadas del problema como sucede en la poesía, el arte o la publicidad, pero también en la ciencia.

En términos psicológicos son los mismos procesos los que explican la conducta creativa que puede manifestarse en la cocina, diseñar un plan para enamorar al hombre o la mujer de tus sueños o inventar un cuento para dormir a los niños… Son los mismos procesos creativos en estos casos que en aquellos que mueven a realizar las grandes obras de la mente humana que han sobrevivido a la selección cultural y son valoradas como obras maestras, ya sean obras de arte, teorías científicas o espectaculares avances tecnológicos.

Pero, aunque la esencia del acto creador es todo ese trabajo mental. Sin embargo, hay que dejar sentado de entrada que estamos ante una dimensión de la conducta humana extremadamente compleja donde, de una u otra manera, se hallan implicados procesos muy diversos. Así, hemos de señalar, como requisito inexcusable para la creatividad, la motivación intrínseca hacia la tarea; es decir, motivación basada en el gusto, el interés por el propio trabajo en sí y no por refuerzos externos. La creatividad se asocia también con rasgos de personalidad como son la autoconfianza, perseverancia, apertura a la experiencia, capacidad de asumir riesgos, tolerancia a la ambigüedad e independencia.

Sobre la creatividad histórica y la creatividad personal

Tenemos que hablar de procesos mentales comunes en la ciencia o en el arte, en la creatividad extrema que ha pasado a la historia o en la creatividad cotidiana. La H-creatividad o creatividad histórica siempre implica a la P-creatividad o creatividad personal, y desde el punto de vista psicológico no existen diferencias cualitativas. Es evidente que las habilidades propias del pensamiento creador se combinan, de manera integrada con las habilidades propias de dominio, del ámbito donde la persona realiza sus aportaciones y que unas y otras tienen un desarrollo inmenso en las personas h-creativas pero, no tenemos que hablar de procesos distintos, no hace falta recurrir a las 'musas' o a unas dotes innatas únicas. De otra forma, no tendría sentido hablar de creatividad aplicada ni del papel de la educación en el desarrollo de la creatividad.

Educación para la creatividad

Una educación para la creatividad es aquella que permite y alienta el desarrollo de todas las características de la persona creativa señaladas.

Esa complejidad que atribuimos a la creatividad implica también unas condiciones favorables, especialmente en los niños, un ambiente estimulador que no bloquee y que no coarte su libertad para hacer aportaciones personales.

Una escuela que fomente la actitud crítica, la libertad y la independencia del pensamiento no cuadra con el modelo tradicional donde el profesor, ante filas de alumnos receptivos, pasa información que ellos habrán de asimilar y reproducir de la manera más exacta posible. No cuadra con el modelo donde la actitud divergente, la curiosidad, las preguntas -a veces intempestivas- del alumno son desestimadas. En este modelo el alumno ideal es complaciente y callado, solo habla cuando se le pregunta y sus respuestas deben acomodarse a las expectativas del profesor. Este modelo de alumno tendrá limitado su potencial creativo.

La conducta más independiente, crítica, exploradora ha sido durante mucho tiempo penalizada en el aula. Con frecuencia es entendida como impulsiva, trasgresora, disruptiva. Antes de verificar su potencial o sencillamente contrastar con el alumno lo erróneo de la nueva idea, ésta será rechazada. El miedo del profesor a alejarse de un programa establecido, la presión curricular e incluso, las condiciones ambientales con clases masificadas, pueden explicar esta resistencia a la conducta creativa. Pero también el miedo al caos en el aula o la preconcepción de que solo hay una forma correcta de hacer las cosas o una única respuesta correcta para cada cuestión. Y esto aumenta cuanto mayor es el nivel educativo en la escuela. El terrible refrán español "la letra con sangre entra" ha pesado como una losa en la tradición educativa alejando durante mucho tiempo cualquier atisbo lúdico de las tareas escolares, cuando lo cierto es que el aprendizaje debe ser divertido. Hay una conexión reconocida entre juego y creatividad (Romo, 2007)

Los efectos de este rechazo a la creatividad los constató Torrance (1968) en lo que llamó "la crisis del cuarto grado", un periodo crucial, en torno a los 9 años, donde los niños muestran un bajón significativo en las pruebas de creatividad. Una de las razones de esa renuncia a la creatividad es la necesidad de conjurar el rechazo más o menos evidente del maestro. Una escuela creativa es incompatible con el miedo a la autoridad del maestro. Más que el rancio papel de autoridad incontestable, el rol del profesor debe ser de apoyo y guía.

Tres pautas sencillas y complejas a la vez, pueden recoger las directrices de lo que debe ser el estímulo a la creatividad en el aula:

- Estimular al alumno a estar abierto a la novedad.
- Darle el valor de pensar por sí mismo
- Mostrar respeto por sus actividades, para favorecer un buen autoconcepto sin el cual la creatividad no es posible

En definitiva, respetar los dos principios esenciales de una formación creativa: libertad y seguridad psicológicas. Libertad del alumno para manifestarse, ofrecer sus aportaciones, y desarrollar una actitud inquisitiva, de curiosidad intelectual. Y seguridad psicológica para que, cuando el alumno manifieste estas conductas, no sufra rechazo o pueda ser desautorizado por el profesor en el caso de desconocimiento o error. Libertad para equivocarse y aprender de los errores.

REFERENCIAS:
Romo, M. (1997) Psicología de la creatividad. Barcelona. Paidos.
Romo, M. (2007) Juego y creatividad en el niño. En Belver, M.H. y Ullan, A.M. La creatividad a través del juego. Ed. Amarú. Salamanca.
Torrance, E.P. (1968) A longitudinal examination of the fourth grade slump in creativity. Gifted Child Quarterly 12, 195-197

Eskola Iraunkorren Ziurtagiria

Beste hogeita lau ikastetxek lortu zuten Eskola Iraunkorraren Ziurtagiria aurreko ikasturtean. Horrenbestez, guztira, 77 ikastetxek lortu dute bereizgarri hori, ekimena 2007. urtean abian jarri zenetik hona.
Ziurtagiri gehiago eskatzeko epea abenduaren 20an amaituko da.

RIO +20

Garapen Iraunkorrari buruzko Nazio Batuen Biltzarra

Horrelako lehen bilera egin zutenetik hogei urte igaro direnean, iragan ekainean bildu zen berriro Garapen Iraunkorrari buruzko Nazio Batuen Biltzarra, Rio de Janeiron. Eta bilera horretan, jakina, euskal ordezkaritza batek parte hartu zuen. Rio+20 Goi Gailurrari begira, aurreko hilabeteetan hainbat ekimen bultzatu ziren Euskadin, parte hartu behar zuen ordezkaritzaren jarrera zehazteko. Jarrera horretan, ohi denez, gazteek ikastetxe eta unibertsitateetan egindako lana nabarmendu zen.

Euskal ordezkaritzaren ekarpena itxuratu duten ekimenen artean honako hauek ditugu: alde batetik, maiatzean egindako hirugarren Confint Euskadi, Madariaga dorretxean, 23 ikastetxeko ehun bat ikasle eta 25 irakasle parte-hartzaile izan zituena; bestetik, EITBren egoitzan hil beraren hasieran egindako tailerrak. Horien bidez agerian geratu da euskal gizarteak garrantzi handia ematen diela gure planetak ingurumenaren aldetik aurrean dituen erronkei.

Gizartearen ordezkaria den aldetik, Eusko Jaurlaritzak bat egin nahi izan zuen proiektu horrekin, adierazpen instituzional baten bidez. Horretan, konpromiso hauek hartu zituen, besteak beste: ekonomia berdea sustatu eta pobrezia desagertzea; iraunkortasunerako politikak diseinatu eta garatzea; iraunkortasunaren aldeko tresna berriak lantzea; administrazioak iraunkortasunari lotutako gaietan inplikatzea; Euskadik garapen iraunkorrean aurrera egiten jarraitzea; Iraunkortasunaren aldeko lankidetza globalean jardutea; Euskadik parte hartzen duen nazioarteko eta estatuko foroetan lan egitea, Nazio Batuek "Garapen Iraunkorrerako Helburuak" sortzea sustatzeko.
http://rio20.net/

Galiziako Xuntak CLMNTK Kongresuaren bosgarren edizioa eta Climántica Sariak antolatu ditu iragan ekainean, Lehen Hezkuntzako, Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Unibertsitateko ikasleei zuzenduta. Ekimenen helburuak bi hauek izan dira: gazteen artean klima-aldaketaren arazoarekiko sentsibilizazioa zabaltzea eta ingurumenaren aldeko jarrera iraunkorrak sustatzea. Deialdiak goiburu hau izan du: "Gehiago gara planeta leheneratzen". Besteak beste, parte-hartzaileen sormena sustatzea bilatzen zuen, ingurumenari lotutako lanen bidez. Hona hemen lan horien kategoriak: kontakizuna, poesia, metraje laburreko filma, musika-bideoa, argazki iruzkindua, komikia, posterra, multimedia erreportajea… Gainera, oraingoan, teknologia berriek funtsezko zeregina izan dute proiektuan, bosgarren edizioa erabat birtuala izan baita.

2012-2013 ikasturteko Eskolako Agenda 21en datuen laburpena

			Alumnado			Profesorado			Metas a trabajar				
	Nº Aytos.	Nº Centros	En el Centro	En Agenda 21 Escolar	% A21E Centro	En el Centro	En Agenda 21 Escolar	% A21E Centro	Aire-agua…	Consumo-Residuos-Huella Ecológica…	Biodiversidad-Paisaje…	Movilidad	Energía-Cambio climático.
ARABA	12	56	48.281	27.241	56%	4.535	2.187	48%	1	19	29	0	7
BIZKAIA	59	239	168.634	115.295	68%	15.204	9.183	60%	2	166	8	59	4
GIPUZKOA	51	171	109.180	73.788	68%	10.415	6.474	62%	1	74	55	38	3
C.A.P.V.	122	466	326.095	216.324	66%	30.154	17.844	59%	4	259	92	97	14

Eskolako Agenda 21ek ateak ireki dizkio Europari

Gasteizko Udalak Eskolako Agenda 21 proiektua indartzea eta Europako beste ikastetxe batzuetara hedatzea erabaki zuen iragan ikasturtean, hiria European Geen Capital izendatzeko lorpenaren esparruan. Hala, 2011-2012 ikasturtean, Gasteizko hogeita lau ikastetxek landu zuten elikadura iraunkorraren gaia, Pitesiko (Errumania), Wurzeneko (Alemania), Ciudad Realeko eta Laudioko sei ikastetxerekin batera. Ikastetxe horiek proposamenak, konpromisoak eta jardunbide egokiak azaldu zizkioten elkarri, web-plataforma bat erabiliz.
Ekimenaren goreneko unea maiatzaren bukaeran izan zen, ikastetxe guztiek baterako bilera egin zutenean. Bilera hartako eztabaidetatik hainbat ondorio atera eta alkateari eta hiriak Udal Foroan duen ordezkaritzari aurkeztu zizkieten. Ikasleek egindako oharpenenen artean azpimarratu zutenez, hiri guztietako saltokietan tokian tokiko eta sasoiko produktuei buruzko informazioa falta da, eta, horregatik, zaila da horiek kontsumitzea; aitzitik, osasungarriak ez diren produktuen inguruko publizitatea eta kontsumoa gehiegizkoak dira, adibidez, janari azkarrarekin gertatzen den bezala.
Ekimenaren arrakastari esker, ikasturte honetan proiektuak aurrera jarraituko du eta Europako beste ikastetxe batzuk hartuko ditu barne.

Kultura-aniztasuna, iraunkortasuna eta sormena baturik Gasteizen

Green Capital 2012ren esparruan hainbat proiektu aurrera erameteko laguntza-deialdiaren aitzakian, hiriko bi ikastetxek, Ramón Bajo HLHIk eta Aita Raimundo Olabide HLBHIPk, eta hiriko zenbait lekutako beste talde batzuek kultura-aniztasuna, iraunkortasuna eta sormena batzen dituen proiektua diseinatu genuen. Lehiaketan lehen postua lortu genuen eta, jasotako diruari esker, jarduerak zabalpen handia lortu du.

Helburua: hemengo kulturan murgildutako ikasleek eta ikasle atzerritarrek esperientziak partekatzea. Hau da, topaketa horiek garapen iraunkorrarekin uztartu nahi izan ditugu. Horretarako, lehen fasea Erdi Aroko Hirigunean gauzatu zen. Olabideko ikasleok Ramón Bajo ikastetxea eta hango baratzea bisitatu genituen. Ondoren, Gasteizko eta Alde Zaharreko elkarteen laguntzarekin, jarduera askotan parte hartu genuen. Horietan, gainera, hainbat elkartek parte hartu zuten. Horien artean aipatzekoak dira HalaBedi Irratia, Zadorra Fundazioa, Irakasle Eskola, OtsoGorrigane mendu-elkartea, Saregune, Amanda elkartea, Slow Food, Erdi Aroko Hiriguneko kale-hezitzaileak eta Elkarrekin taldea.

Haien eskutik oso egun bizia pasatu genuen: auzoko baratzeak eta horma-irudiak bisitatu, irrati-programa batean parte hartu, jolas, lan-mahai eta kiroletan jardun, usain-tailerrean hortz-orea egin, produktu ekologikoen bidez bazkaria prestatu eta dastatu, blog bat sortu eta beste hainbat gauza egin genituen. Gainera, egun hartako jarduera guztiak bilduko dituen bloga prestatzen ari gara.

Orain, Ramón Bajo ikastetxeko ikasleek Olabide noiz bisitatuko zain gaude. Orain arte, Elkarrekin-eko lagunak etorri dira. Guztion artean, bizikletaren erabilera sustatzeko proiektua (Biziz bizi) erakutsiko diegu. Bitartean, DBHko 3. mailako ikasleek abian jarritako blogak aurrera jarraitzen du.

http://geureaezagutuz.badubloga.net/

Joseba Unzalu,
Olabide Ikastola

Ura aurrezteko kanpaina

Ipintza BHIn (Bergara) ura aurrezteko ekimena abian jartzea erabaki dugu. Udal teknikariak ikastetxeko Agenda 21en arduradunei proposatu zien ekimen hori, eta guri oso interesgarria eta egokia iruditu zitzaigun.

Zereginen Ikaskuntza Gelako (ZIGeko) eta Batxilergoko informatika-ikasleak gara eta Agorrosin kiroldegian abian jarritako ura aurrezteko kanpainaren diseinuan parte hartu dugu.

Horretarako, gure lana bi arlotan banatu dugu. Alde batetik, horma-irudiak prestatu ditugu, eta bestetik, ikus-entzunezko mezu batzuk. Mezu horiek eraikineko hainbat bazterretan kokatu ditugu, erabiltzaile bakoitzak bere eguneroko jardueran aintzat har ditzan.

Herritarren artean urak gure biziran duen garrantziarekiko kontzientzia sorraraztea eta uraren erabilera iraunkorra sustatzea izan dira gure helburuak.

Ipintza BHIko (Bergara) ZIGeko eta Batxilergoko 1. mailako informatika-ikasleak

Nengo Dango ereiteko teknika Bilbora heldu da

Ibaizabal BHIko (Bilbo) eko-ordekariok basoak ereiteko Nengo Dango izeneko teknika jarri dugu abian.

Nengo Dango (japonieraz, lokatz-bolak) basoak ereiteko teknika berria da, atsegina eta eraginkorra. Lurrez eta lokatzez osatutako bola batean, zuhaitzen eta bestelako landareen haziak nahasten dira, albondiga bat izango balitz bezala. Bolak lehortutakoan, zuhaitzik ez dagoen eremuetara botatzen dira. Bolek haziak babesten dituzte animaliengandik, harik eta, euria iristen denean, ernatu arte. Gainera, animalien aurkako babesa areagotzeko, bolak kaienaz edo piperbeltzez estal daitezke.

http://ibaizabalbhi.blogspot.com.es/2012/05/nendo-dango-tailerra-teknika-hau.html

Ibaizabal BHIko (Bilbo) eko-ordezkariak

Toki arazoak direla eta, Ihitzak beretzat gordetzen du jasotzen dituen gutunak osorik ez argitaratzeko eskubidea

Ihitza se reserva, por motivos de espacio, el derecho de no publicar íntegramente las cartas que se reciban

Mapa mentalak: elkarketaren eta sormenaren magia

Egitura neuronalen bidez funtzionatzen duen analisi-metodoa da mapa mentala. Horri esker, pentsamenduak erraz antolatu, adimen-gaitasun guztiak erabili eta sormena estimulatzen da. Ideiak adar eta konexioen bidez antolatzen dira muin zentralaren edo ideia nagusiaren inguruan. Horrela, gure pentsamenduaren sekuentzia eta egitura erreala erreproduzitzen da.

MAPA MENTALAK: ELKARKETAREN ETA SORMENAREN MAGIA

1. Hasi paper zuri baten erdialdean eta zure burmuinari norabide guztietan mugitzeko eta naturaltasunez adierazteko askatasuna emango diozu.

2. Marraztu irudi bat zeure ideia nagusia irudikatzeko. Irudi batek mila hitzek baino gehiago balio omen du eta, gainera, zure irudimena indartu, kontzentrazioa erraztu eta burmuina ernatu egiten du.

3. Erabili kolore asko. Koloreek, irudiek bezala, burmuina kitzikatzen dute. Alderdi kontzeptualak bereizteko ere erabil ditzakezu koloreak.

4. Irudi zentraletik abiatuta, zabaldu kanpoalderantz aukeratutako gaiari lotutako funtsezko hitzak eta ideiarik garrantzitsuenak. Erdigunetik urrundu ahala, erabili lerro edo adar meheagoak ideia guztiak lotzeko.

5. Lerro zuzenen ordez, marraztu beti kurbak. Lerro zuzenek aspertu egiten dute zure burmuina. Lerro makotu eta asimetrikoak, berriz, askoz erakargarriagoak dira eta zure begien arreta errazago bereganatuko dute.

6. Idatzi funtsezko hitz bakar bat lerroko. Zure mapa mentala malguagoa eta sendoagoa izango da.

7. Sartu irudi eta marrazki asko. Ikusizko kontzeptuak hobeak dira hitzezkoak baino: oroimena eta berehalako elkarketa errazten dute.

Iturria: http://es.scribd.com/doc/7660122/Tony-Buzan-Como-Crear-Mapas-Mentales-OCR

ko PBL, ikasteko metodologia berria

Esperientzia hau Santurtziko San Jose de Calasanz ikastetxean jarri zuten abian, eta Lanbide Heziketako Ikasgela eta Tailerretako Praktika Onen Saria lortu zuen, 2009an.

Santurtziko San Jose de Calasanz ikastetxeak abian jarritako Arazoetan Oinarritutako Ikaskuntza (Problem Based Learning – P.B.L.) deritzona ikasteko metodologia aktiboa da, irakaskuntza-metodo tradizionalak ez bezalakoa. Ikaslea du ardatz eta bere helburua da ikasleak berak ezagutzak bereganatzea, ikaskuntza esanguratsuaren bidez.

Metodologiaren oinarria ordenatutako eta egituratutako jarduera multzo bat da. Irakasteko eta ikasteko prozesuan planteatutako egoera errealak ulertzeko, horietaz hausnartzeko eta irtenbideak bilatzeko helburua dute jarduerek, eta, horrela, ikasleen prestakuntza integrala ahalbidetzen dute. Metodologiak erantzuna eman nahi dio inguruko enpresek ikastetxeari eskatzen dioten prestakuntza-profilari. Izan ere, etorkizuneko profesionalak gaitasun teknikoetan eta zeharkakoetan trebatzeko beharra adierazten dute enpresek.

Bestalde, lan-metodo horri esker, ikaslea etengabe motibaturik dago eta lan-inguruari buruzko informazio erreala jasotzen du. Era berean, lanean hasi aurretik eta laneko praktikak egin baino lehen burutu beharreko zereginetan jarduteko aukera du.

Santurtziko ikastetxean, metodologia hori ez da jardunbide oneko esperientzia bat soilik; aitzitik, irakasle guztiek jarduteko eta lan egiteko era bihurtu da. Irakaskuntzan oinarritutako ereduaren ordez, hezkuntzan oinarritutako bestelako eredua ezartzeko aldaketatik etorri zen. Eredu horren berritasun nagusia Haur Hezkuntza GMPZko lehen mailako bost modulu ematen dituzten hiru irakasleren inplikazioa izan da. Irakasle horiek guztiz koordinatuta daude, ezagutza teoriko eta praktikoen ikuspegi orokorra eta integrala lortzeko.

IRAKASLEEN ROL BERRIA

Ikasteko metodologia aktibo horietan, irakasleak beste rol edo eginkizun bat du: ikasleen ikaskuntza "bideratzea", hain zuzen. Eskola-elkarte osoa inplikatzeko helburuz, PBLko irakasle arduradunek ikasleei agertoki berrian bete behar zuten eginkizuna eta aldaketaren zergatia azaldu zizkieten.

Estrategia didaktikoak

PLANTEATUTAKO ARAZOAREN SARRERA

Lan-egoera jakin bat dugu abiapuntu. Egoera horrek moduluaren gaitasunak lantzeko balio ote duen aztertu eta testua idatzi behar dugu, ikasleek erantzuteko moduko galderak eginez:

"Ane 3 urteko ikasgelako tutorea da ikastetxe batean eta, horrez gain, arratsaldez, bere jardunaldia osatzeko, 5 urteko ikasgelako laguntzailea da. Ikastetxea hezkuntza berritzeko programa batean murgilduta dago. Programa horrek tutore-ekintza hobetzeko metodologia berriak aztertzea hartzen du barne eta Aneri laguntzeko eskatu diote, diseinua egiteko. Era berean, Anek hirugarren hiruhilekoko jarduerak programatu eta 2. zikloko tutoreei lagundu behar die udako koadernotxoa lantzen".

HELBURUAK

1. Ikasleak ikasgelako lanaren plangintzara hurbiltzea.
2. Haur Eskolako berezko metodoak ezagutzea.
3. 3 eta 6 urte bitarteko haurrei dagokienez:

· Bizitzan duten beharrei buruz hausnartzea.

· Haien garapen fisikoaren eta psikikoaren oinarrizko ezaugarriak ezagutzea.
· Higieneari eta elikadurari lotutako oinarrizko elementuak ezagutzea.
· Familiekin komunikatzeko estrategia ezberdinak aztertzea.

GARAPENA

Ikasteko prozesua hainbat estrategiaren inguruan egituratu da:

1. **Maisu-eskolak:** irakasleek emandako gaiari buruzko azalpen teorikoa. PBLaren hasieran edo garatzen ari den bitartean egin daiteke.
2. **Lankidetza-saioak:** ikasleak taldeka antolatzen dira, lankidetzaren bidez arazoari erantzuna emateko.
3. **Banakako lana:** taldekide bakoitzak lanaren zati bat egingo du, banaka, ezarritako epearen barruan, eta gero lana aztertu egingo da.
4. **Jarraipen-saioak**: PBLan inplikatutako irakasleek aldez aurretik planifikatu eta taldeei ezagutarazi behar dizkie, lanaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko.
5. **Tutoretza-saioak:** ikasleen zeharkako gaitasunen jarraipena eta/edo ebaluazioa egiteko.

6. **Hitzaldiak:** enpresako adituek egiten dituzte, testuinguruan jarritako informazio osagarria eta praktikoa emateko.
7. **Saio praktikoak:** tailer soziosanitarian eta ikastetxeko Haur Hezkuntzako ikasgeletan.
8. **Enpresak bisitatzea:** lanaren testuinguru erreala ezagutzeko.

BALIABIDEAK ETA MATERIAL DIDAKTIKOA

1. Ikastetxeak berak emandako materialaz gain, ikasleek arazoa konpontzeko behar zuten gainerako materiala lortu behar izan zuten.
2. Era berean, birziklatutako materialak erabiltzea nahitaezko eskakizuna zen.
3. Tailer soziosanitarioa, ikastetxeko Haur Hezkuntzako ikasgelak, ordenagailu-gelak eta WIFI konexioa duten gelak.

EBALUAZIO SISTEMA

1. Lortutako kalifikazioa inplikatutako bost moduluen artan banatu zen, eta % 30eko ekarpena egin zuen modulu horien azken notan.
2. PBLaren bloke bakoitza ebaluatu zen, zegozkien ebaluazio-irizpideak aintzat hartuz. Horretarako, ebaluatu beharreko bloke bakoitzarentzat txantiloi bat prestatu zen. Hona hemen blokeak:

a. Planteatutako arazoari erantzuna emateko lana.
b. Lanaren azalpena Power-Point formatuan.
c. Jarduerak laguntzeko materialez osatutako euskarria, laneko praktikan erabiltzeko.
d. Haur Hezkuntzako ikasgeletan diseinatutako jarduerak abian jartzea.

Sormena ingurumenaren alde

DIFERENTES INICIATIVAS CON UN MISMO OBJETIVO: colaborar de manera voluntaria en la protección de nuestro entorno

Gernikako Seber Altube ikastolan, ingurumenarekiko kontzientziazioa haien jardueraren eragile bilakatu da azken urteotan. Eta ildo horretako hainbat ekimen abian jartzeko bidea aurkitu dute: sormena. Lau ikasle gaztek eskolako jangelako hondakinak bildu eta konpost egiteko zeregin nekaezinari heldu ziotenean hasi zen dena. Ihitzaren 34. zenbakian eman genizuen esperientzia horren berri. Harrez gero, ikastetxean abian jarri dituzten antzeko ekimenak ugariak izan dira.

Ekimen horien eragileen helburua honako balio hauek lantzea da: parte-hartzea, elkarlana, erantzukizuna, jarduteko gogoa, irabazi asmorik gabeko gizarte-lana etab. Ideia guztiak ondo hartzen dituzte. Haien jarrera edozeri baietz esatea da, nahiz eta askotan hori gauzatzea zaila izan. Ideia horietako asko berez zapuzten dira, errealitatearen kontra talka eginda; beste batzuk, berriz, berehala jartzen dira abian (horretarako behar diren bitartekoak eta baldintzak lortzen direnean) eta gainerakoak beste egoera edo une jakin baterako atzeratzen dira, baina denak aztertzen eta kontuan hartzen dira.

Lana antolatzeko, materialak prestatzeko eta abarretarako, ikastetxeko ganbera topaleku bihurtu zuten. Azaldu digutenez, Saharako "haima" baten antzekoa eraiki zuten. Behin programa guztiak abian jarritakoan, ikasleek ikasturtean zehar gauzatzen dituzte, euren borondatez eta hainbat taldetan banatuta: batek papera eta plastikoa birziklatzera eramaten ditu, berrerabili ostean; beste batek elikadura naturalaren aldeko kanpaina jartzen du martxan, kartelak ipintzen ditu etab. HONA HEMEN ADIBIDE BATZUK

1 Borraska plana (B PLANA)

Ikastetxeko 600 ikasleek leku txikiegia dute eguerdian aterpetzeko, euria egiten duenean. Jendea pilaturik egoten da, zarata handia sortzen da, gehiegizko zalaparta… Han ez da giro. Arazoa konpontzeko, talde bat eratu zen. Horren zeregina: horrelakoetan eraikinaren barruan jarduerak antolatu eta eskaintzea.

2 Alokairu gunea

Norberak etxetik ekarritako materialak lagatzeko gunea da: musika, pelikulak, jokoak, liburuak etab. Gero, ikaskomunitateko gainerako kideek astebetez aloka ditzakete material horiek. Horrela, kontsumoa murriztu eta kulturaren berrerabilera sustatzen da.

3 Berotegia

Berotegiaz arduratzen diren taldeek honako zeregin hauek dituzte, besteak beste: landareak landatzeko lekuak egokitzea, konposta ondo xehatuta egon arte prestatzea, landatu ondoren lurra heze egotea eta kanpoaldeko ontziak beteta edukitzea. Garrantzitsuena zera da: kide bakoitzak bere zereginak argi izatea.

4 gaua kanpalekuan

Ekimen horiek guztiak ospatzeko, ikasturtearen amaieran gau bat antolatzen dute kanpalekuan. Jarduera horri esker, gainera, taldeak sendotu egiten dira eta taldekide guztiek esperientzia atseginaz gozatzen dute.

GURE INGURUNEA, GURE INSPIRAZIOA

Gure hiriko edo herriko kulturari edo aisialdiari dagozkien elementuak aprobetxatzea mesedegarria izaten da ikasleei proposatzen zaizkien jarduerarekiko interesa sustatzeko, haiek ere elementu horietan parte hartzen baitute.

Ordiziako azoka, adibidez, aski ezaguna izateaz gain, herritarren bizitzaren erdigune izaten da astero. Hango postuen artean hainbat historia eta gertakari bizi izan dira. Izan ere, kontuan hartu behar dugu merkatu horrek aurten bosgarren mendeurrena ospatzen duela. Ildo horretan, Ordiziako Jakintza Ikastola HLHIko Bigarren Hezkuntzako hirugarren mailako ikastaldeak bere harri-koskorra ekarri nahi izan du ospakizun horretara.

Hala, iragan azaroan, ikasleek ikasturteko bigarren proiektua amaitzen zuten bitartean, haien arduradunek hurrengoa landu behar zuten. Haien asmoetako bat infografia bat egitea zen. Tresna horrek hainbat hezkuntza-helburu zituen eta, gainera, ikasleen sormena sustatzeko eta euskara modu erakargarriagoan lantzeko lagungarria zen.

Baina egitasmoa abian jartzeko testuinguru egokia behar zuten, ikastaldearentzat hurbila eta erakargarria izan zedin . Eta Bigarren Hezkuntzako hezkuntza-arduradunen bilera batean sortu zen ideia. Ordiziako merkatuaren urteurrena jardueraren bat antolatzeko erabiltzea burutu zitzaien; beraz, horixe izango zen ekimena abiatzeko falta zen puntua.

Une hartan hasi ziren proiektua diseinatzen. Tutoreek bazekiten proiektua ikasleekin bateratu aurretik ideiaren ardatz nagusiak finkatu eta lerro orokorrak zehaztu beharra zeukatela. Eta uste osoa zuten planteamenduen malgutasuna ezinbestekoa izango zela proiektua ikastaldearen ezaugarrietara egokitzeko edo gauzatzeko bidean sor zitezkeen ustekabeko arazoei irtenbideak emateko. Hala, lanari ekin zioten.

GARAPENA

Lehenengo urratsa ikasleekin bilera egitea zen, proposamena aurkezteko. Ikasleen aldeko iritzia lortu ondoren, beste bilera batzuk eskatu zituzten D´Elikatuz elkarteko eta Udaleko arduradunekin, bi erakunde horiek infografia egiteko informazio-iturriak izango baitziren. Hitzordu horretan, ikasle bikote batek ideia azaldu eta teknikarien oniritzia lortu zuten, baina baita oharpen bat ere: ez zegoen merkatuari buruzko datu-erregistro handirik. Hala ere, "zegoen guztia emateko" konpromisoa hartu zuten arduradunek. Informazioa azkar iritsi zen eta horrela hasi zen proiektua garatzen.

Lehenengo zeregina infografiaren nondik norakoak ezagutzea zen (zer den, zertarako balio duen, nola egin behar den) eta, behin hori guztia ulertutakoan, infografiak izan beharreko ikusizko elementuak aztertu zituzten. Hau da, landa-lanari ekin aurretik, proiektua zehazteko fasea burutu zuten.

Oinarriak ondo finkatutakoan, datuak bilatu, iragazi eta tauletan kokatu zituzten, eta azkenik, infografia burutu zuten. Prozesuak sei bat aste iraun zuen. Itxuraz denbora luzeegia da horretarako, baina kontuan izan behar dugu denbora horretan ezagutza eta esperientzia handiak bereganatu zituela ikastaldeak.

Arduradunen iritziz, oso esperientzia aberasgarri izan zen, eta ikasleek ez ezik, irakaslek ere ikaragarri ondo pasatu zuten. Talde-lan ederra, inondik ere!

http://jakintza.net/2012/02/07/ikasleek-ordiziako-azokaren-infografia-argitaratu-dute/

Haur hezkuntzako 2. zikloa eta Lehen hezkuntzako 1. zikloa

Ekintza

Horma berdeak patioan

Hormek garrantzi handia dute: eskolako bizitzari buruzko informazioa eman eta hartzen dute.

HELBURUA:

Produkzio plastikoetan era sortzailean parte hartzea, komunikatzeko posibilitateak areagotzeko hainbat teknika erabiliz.

Oinarrizko gaitasuna:

Kultura humanistikoa eta artistikoa.

Jardueraren garapena

Ikastetxeko jolastokiko hormak berritzen saiatuko gara. Horretarako, naturako elementuak edo birziklatuak erabiliko ditugu, era sortzailean.

Hona hemen bete beharreko urratsak:

1. Lehenik eta behin, jakin behar dugu ikasleek zer uste duten jolastokiko hormei buruz: zer koloretakoak dira? zer falta zaie? zer egin dezakegu horma horiek alaiagoak izan daitezen?

2. Ikasleen ekarpenak jasotakoan, irakasleek ere beren ideiak eman ditzakete jolastokia hobetzeko. Hona hemen zenbait ekimen, ikasleekin elkarlanean gauzatzeko.

Goroldioz egindako graffitia

1- Jarri hiru eskukada goroldio garbi irabiagailuan, 700 ml ur epelekin.

2- Ondoren, landareetan ura atxikitzeko erabiltzen den gelaren bi koilarakada erantsi (loradendetan eros daiteke).

3- Bota 120 ml esne-serum (esne epela koilarakada bat ozpinez edo limoiz "pikatzen" denean sortzen den likido horizta da).

4- Irabiatu nahastura osoa ore homogeneoa lortu arte.

5-6- Jarri orea ontzi batean eta margotu horrekin hormigoizko, adreiluzko edo zurezko horma baten gainean.

7- Busti marrazkia sarritan, ura ihinztatuz.

http://www.taringa.net/posts/hazlo-tu-mismo/9135634/Graffitis-de-Musgos_-_como-hacerlos_.html

Lorategi bertikala

Zurezko fruta-kutxak edo paletak erabiliz, margotu eta horman atxikiko ditugu, lorategi bertikala osatzeko. Lehenago, ikasgelan, haziak ereingo ditugu kutxetan, bainugelako paperaren kartoizko zilindroak erabiliz.

http://casaecohabitada.blogspot.com.es/2012/05/jardin-vertical-palets-reciclados.html

Kortxozko karteldegia

http://www.decoesfera.com/hazlo-tu-mismo/recicladecoracion-panel-motivador-con-corchos-de-botellas

Lehen hezkuntza

Ekintza

Nolako ikastetxea nahi dugu?

Helburuak:

Etorkizuneko ikastetxea imajinatzea, ideia horri buruz eztabaidatzea, nork bere iritzia eratzea eta neurri bat edo batzuk abian jartzeko konpromisoa hartzea.

Gaitasunak:

Jendetasuna eta herritartasuna.
Kultura humanistikoa eta artistikoa.

Garapena

Ikastetxeetan, oro har, gauzak mugiezinak direla uste badugu ere, beti izaten da hobetzeko aukerarik: ikasgelaren antolakuntza, ordutegiak, jolas-orduaren antolakuntza, espazioen diseinua, txoko berdearen hornikuntza etab.

Sei kapelen* metodoa erabiliko dugu geure ikastetxearen etorkizunaz amesteko eta hobekuntza-ideiak proposatzeko.

1. urratsa

KAPELA ZURIA jantzi eta ikastetxearen errealitatea eta datu zehatzak idatziko ditugu paper zurian. Ondoren, ideia horiek guztiak zenbait kategoriatan banatu eta, horrela, ikastetxearen argazkia lortuko dugu.

2. urratsa

KAPELA GORRIA jantzi eta ikastetxean sentitzen ditugun sentsazioak eta emozioak idatziko ditugu paper gorrian. Idatzi ez ezik, marrazkiak ere egin daitezke. Horiekin guztiekin, ikastetxearen mapa emozionala osatuko dugu.

3. urratsa

KAPELA BELTZA jantzi eta pentsamendu negatiboak izango ditugu. Erabilitako orri batean edo egunkari zahar batean ikastetxearen alderdi negatiboak edo ikastetxean bizi izandakoak edo ikusitakoak idatziko ditugu. Ondoren, zenbait kategoriatan banatu eta ikastetxearen argazki beltza izango dugu.

4. urratsa

KAPELA HORIA jantzi eta pentsamendu positiboak izango ditugu. Paper horietan, ikastetxearen alderdi positiboak edo ikastetxean bizi izandakoak edo ikusitakoak idatziko ditugu. Ondoren, zenbait kategoriatan banatu eta ikastetxearen argazki positiboa izango dugu.

5. urratsa

KAPELA BERDEA jantzi eta hobekuntza-neurriak edo alternatibak idatzi edo marraztuko ditugu. Urrats honetan, eskertzekoa da sormena eta ideia berri guztiak onartzen dira. Berriz ere, kategorietan banatu eta, horiekin, nahi genukeen ikastetxearen irudia osatuko dugu.

6. urratsa

KAPELA URDINA jantzi, hobekuntza-neurrietako bat aukeratu eta hori betetzeko eman beharreko lehen urratsa idatziko dugu.

Amaitzeko, neurri eta urrats guztiak bateratu eta horietako bat aukeratuko dugu, bozketaren bidez. Neurri hori abian jartzeko, honela egin dezakegu haren garapenaren plangintza:

* Pentsatzeko sei kapelen metodoa Edward de Bonorena da (Six Thinking Hat: An Essential Aproah to Business Management).

Derrigorrezko bigarren hezkuntza

Ekintza

Fantasia errealitate bihurtua

Garapena

"Garapen iraunkorra lortzeko, konponbide sortzaileak behar ditugu", esan zuen Ban Ki-moonek, Nazio Batuetako idazkari nagusiak, NBEk 2012ko otsailaren 20an egindako Batzar Nagusian, Nairobin. Hau da, iraganeko errezetek ez dutela balio egungo krisialditik irteteko. Ala bai?

Badirudi ezetz. Aditu askoren arabera, egungo krisialdi ekonomikotik, sozialetik eta ekologikotik irteteko ezinbestekoa da iraganarekin hautsi eta gizarte-eredu arduratsuago baten alde lan egitea. Baina, nola egin daiteke hori? Erantzuna Ban Ki-moonek eman digu, lehen paragrafoan. Irtenbide sortzaileak behar ditugu.

Baina, zer da sortzaile izatea? Sormenak eta berritzeko gaitasunak gizakiaren dimentsio guztiak hartzen ditu barne (kognitiboa, emozionala, prozedurazkoa, gorputzezkoa, transzendentala, etikoa, arrazionala, soziala, kulturala…). Zerbaitek, sortzailea izango bada, originala, ezezaguna, ezberdina, ezohikoa izan behar du, baita erabilgarria eta egokia ere; gainera, onuragarria izan edo arazoei irtenbidea emateko balio behar du.

Zergatik ez hasi ikastetxean? Ziur aski, hainbat eta hainbat fantasia eta amets dituzu buruan. Ikastetxearen arazoren bati irtenbidea emateko balio lezakete?

Baliabideak

Lan egiteko: ikasgela, aulkiak taldearentzat, arbela, koadernoa, grabagailua (hautazkoa), erlojua.

Parte-hartzaileak

Pertsona bat dinamizatzeko eta oharrak idazteko eta gainerako taldekideak.

Helburuak

- Ikaslearen sormena eta berrikuntzarako gaitasuna lantzea.
- Elkarlana sustatzea.
- Ikastetxearen arazoei konponbideak aurkitzeko formulak proposatzea.

Landutako gaitasunak

- Ikasten ikastea.
- Autonomia eta ekimen pertsonala.
- Hizkuntza-komunikazioa
- Jendetasuna eta herritartasuna.
- Kultura soziala eta artistikoa.

Zer egin dezakegu …

… Ikastetxeko ingurumen-arazoak konpontzeko?
…Sortutako hondakin kopurua txikitzeko?
…Energia-kontsumoa murrizteko?
…Ikasleen partaidetza sustatzeko?
…Ur-kontsumoa jaisteko?

*** Neuronilla Fundazioaren webguneak (www.neuronilla.com) sormena garatzeko ideia, baliabide eta metodologia interesgarriak eskaintzen ditu.**

Metodologia: Brainstorminga (ideia-jasa).

PROZESUAREN FASEAK

1. Berotzeko fasea

Entrenamendua taldeka egingo dute, prozesuak hobeto funtzionatzeko. Adibidez: ikastetxearen inguruan aurki ditzakegun animalia guztiak aipatuko ditugu.

2. Ideiak sortzeko fasea

a. Zenbat ideia lortu nahi ditugun zehaztu.
b. Zenbat denbora dugun zehaztu.
c. Fase horretarako oinarrizko lau arau:

1. Kritika guztiak debekatuta daude.
2. Ideia guztiak ongi etorriak dira.
3. Ahalik eta ideia gehien lortu behar dira.
4. Ideiak lotu eta garatzea komeni da.

Horrela, une horretatik aurrera, parte-hartzaileek burura datorkien edozein ideia esan dezakete proposatutako arazoari buruz, arau horiek errespetatuz eta inolako lotsarik gabe. Izendatutako pertsonak arbelean idatziko ditu ideia guztiak.

3. Ideien inguruan lan egiteko fasea

Ideiak gehitu edo hobetu ahal dira eta, horretarako, galdera jakin batzuk erabil daitezke: Beste era batera egin daiteke? Zerbait aldatuz? Handituz? Kodetuz? Berrantolatuz? Konbinatuz?

4. Ebaluazio-fasea

Ideia-jasaren ostean, taldeak ideiak ebaluatuko ditu, irizpide hauen arabera:
a. Ideia abian jartzeko aukerak.
b. Zailtasuna.
c. Ideia onuragarria da.

Batxilergoa eta Lanbide Heziketa

Ekintza

Iturria

www.consumehastamorir.org
CD-ROM Didaktikoa 2.0 bertsioa

Helburua

Kontrapublizitateko iragarki bat egitea:
· aztertutako iragarkiaren balioa eta ideia nagusiak ezagutuz,
· lortu nahi den komunikazio-erantzuna identifikatuz,
· publizitateak indartzen duen produktuaren ingurumen-alderdiak nabarmenduz eta salatuz.

Gaitasunak

· Kultura humanistikoa eta artistikoa.
· Informazioaren tratamendua eta teknologia digitalaren erabilera.
· Jendetasuna eta herritartasuna.

Baliabideak

· Internet, aldizkarietako iragarkiak, gure iragarkiarentzako euskarria (papera edo beste batzuk).

Garapena

Hasteko, erakutsitako iragarkiaren (edozein aldizkaritatik har dezakegu) antzekoak aztertuko ditugu, 4 edo 5 pertsonaz osatutako taldeetan.

1. Zer abantaila dakar bizarra mozteko produktu horrek, beste bizar-xafla batzuen aldean?

2. Iragarkiko zer elementuk (irudia eta testua) azpimarratzen dute produktu hori oso berritzailea dela?

3. Uste duzu bizar-xafla horiek oso beharrezkoak direla?

4. Zure ustez, zergatik azpimarratzen da hainbeste iragarkitan iragarritako produktuak oso berritzaileak direla?

Orain, kontra-iragarkiari ekin diezaiokegu:

1. Zer kritikatu nahi dugu?

2. Orain, kritikatu nahi dugun alderdiarekin zerikusia duen irudi bat pentsatuko dugu.

3. Kritikatu nahi dugun iragarkiaren kontrako eslogana edo testua sortuko dugu.

Kontra-iragarki hau Leganeseko (Madril) Maria de Zambrano Bigarren Hezkuntzako Institutuko ikasleek egin zuten, 2005ean.

Denon artean

Ekintza

SORMENA

Helburuak:

- Ideia berritzaileek eguneroko bizitzan duten garrantzia ulertzea.
- Egunero erabili ohi ditugun objektuak aztertu eta ideia berritzaileetan oinarrituta sortu zirela hausnartzea.

Gaitasunak:

- Zientzia-, teknologia- eta osasun-kultura.
- Ikasten ikastea.
- Jendetasuna eta herritartasuna.

Ezaguna egiten zaizu "sormen" hitza? Jakingo zenuke horren definizioa adierazten? Saiatu.

Behin baino gehiagotan entzungo zenuen norbaitek burutazio asko edo fantasia handia duela. Zure ustez, loturarik dute ideia horrek eta zuk sormenari buruz emandako definizioak?

Laburtuta, esan daiteke sortzailea izatea, oro har, ideia berriak izateko gaitasuna dela. Ideia horietako batzuk abian jar daitezke eta beste batzuk ez, baina ideia berriak dira.

Zure familiakoei galdetuz gero, oro har, ezagutzen dituzten pertsona "sortzaileak" aipatuko dizkizute. Galdetu gaiari buruz eta egizu zerrenda bat, ideia sortzailea, pertsona horien adina, zer urtetan gertatu zen etab. adieraziz.

1. TAULA

IDEIA	PERTSONA/ADINA	URTEA

Gainera, asmatzaileren bat ere ezagutuko dute. Egunero erabili ohi ditugun gauza asko pertsona sortzaileek asmaturikoak dira. Eta ez dute zertan liburu edo pelikuletan agertzen diren pertsonaia ospetsuak izan beharrik. Hala, guk uste baino hurbilago ditugu sortzen, asmatzen edo gauza berrietan pentsatzen dituzten pertsonak. Egin dezagun beste zerrenda bat aipatutako pertsona eta asmakizun horiekin.

2. TAULA

ASMAKIZUNA	PERTSONA	URTEA

Asmakizun teknologikoz inguratuta gaude. Horiek gure eguneroko bizitza erosoagoa, seguruagoa do atseginagoa izateko balio dute eta ondo pasatzeko, ikasteko, osasuna zaintzeko eta abarretarako erabiltzen ditugu. Saiatu adierazten, hitz gutxitan, zertarako balio duten eta zer onura dakarkiguten 2. taulan zerrendatutako asmakizunek.

1.-

2.-

3.-

Positiboak al dira ideia berrien emaitzak? Onak eta onuragarriak al dira asmakizun guztiak? Zergatik? Zeren mende dago asmakizun horiek onuragarriak edo kaltegarriak izatea?

Argi dago: erabileraren mende dago. Pentsatu apur bat ideia horretan eta, ondoren, eztabaidatu taldearekin. Oso ondorio interesgarriak sortuko dira.

Sormena eta berrikuntza

Zerbait berria asmatzeko edo egiteko, sortzailea ez ezik, berritzailea ere izan behar du norbaitek. Horrela, ideiak errealitate, objektu, ekintza bihurtzen dira. Zure lagunen artean pertsona berritzaileak egongo dira. Behin baino gehiagotan jolas berriren bat, jarduera berriren bat edo arratsalde librea pasatzeko beste moduren bat bururatuko zitzaizuen.

Ideia berriak izan nahi baditugu, horretan saiatu behar dugu. Jaso aurreko tauletan bildutako informazio guztia eta komentatu ikasgelan.

Eta, ideia berriez ari garela, zer egin dezakegu guztion artean ingurumena hobetzeko? Proposamenik bururatzen zaigu?

IDEIA GUZTIEK BALIO DUTE

Oraingoan, gure ikastetxe askotara eraman daitekeen proposamen baten berri emango dizuegu.

Getxo Berpiztu! du izena eta Zaramarik, ideia iraunkorrak ekoizten dituen enpresa batek, jarri du abian herri horretan.

Ideiaren helburua da espazio publikoaren erabilera eta eraldaketa autokudeaketaren bidez sustatzea, hau da, erabakiak hartzeko prozesu kolektiboen bidez. Kasu honetan, saritutako planak hauxe proposatzen du: Getxoko orube bat egokitzea, nahi duten pertsona guztiek parte hartuz. Baina, zergatik ez eraman ideia hori, adibidez, ikastetxeko patiora, haur txikientzako gune batera, adinekoentzako leku batera etab?

Hasteko, Zaramariko arduradunek eskola-tailer batzuk antolatu eta dinamizatu zituzten, herriko haurrez osatutako talde batek eraldaketa-prozesuaren diseinua egin zezaten. Parte-hartzaileak euren sormen osoaz baliatu ziren orube horretarako erabilera eta ekipamendu egokiak bilatzeko. Saioen hasieran, sortzaile txikiek sarrerako azalpentxo bat jaso zuten, hainbat kontzeptu argitzeko: espazio publikoen eta pribatuen arteko ezberdintasunak, horietan gauzatu ohi diren jarduerak… Eta pixkanaka, aukeratutako gunea aztergai jartzen joan ziren: ezaugarriak, sarbideak, mugak, inguruko espazioarekiko erlazioa etab.

Taldeak lekua behar bezala ezagutu zuenean, txikiek emandako proposamenak eta ideiak biltzen hasi ziren ekimenaren arduradunak, eta horietan oinarritu ziren espazio horretarako erabilerak eta ekipamenduak zehazteko azken erabakia hartzeko.

Mahai gainean jarritako proposamenen artean honako hauek zeuden:

- **Jolasgune bat eratzea, inguruko elementuak aprobetxatuz:** orubearen pendiza baliatuz txirrista jartzea, zuhaitzetatik zabuak eskegitzea…
- **Picnic-gunea egitea**, ikasleak eta familiak aisialdian hor egoteko, eguzkia hartzen, irakurtzen…
- **Txakurrentzako gunea.** Espazioa maskotentzat ere irekita egotea erabaki zen, baina horretarako mugatutako leku batean soilik. Animaliek eragin dezaketen kezkez ohartarazteko kartelak jartzea erabaki zuten.
- **Baratzeak jartzea**, berotegiak balira bezala itxita.
- **Ur-hornidura.** Baratzea ureztatzeko, euri-ura bilduko zuen andela jartzea proposatu zuten.
- **Zuhaitzak.** Lursailean behar beste zuhaitz eta zuhaixka zeudenez, ez zen gehiago landatu behar.

Ondorio gisa, arduradunek azpimarratu zutenez, parte-hartzaileek gaitasun handia erakutsi zuten irtenbide bideragarri eta iraunkorrak proposatzeko, eta ez beren buruari begira soilik, baita komunitate osoarentzat ere.

FUTURE WE WANT - FUTURE WE NEED

Rémi Parmentier
Director of The Varda Group, an international consultancy, Rémi Parmentier is a veteran of the environmental movement.
www.vardagroup.org blog: http://chezremi.com
Twitter: @RemiParmentier

At regular intervals the United Nations convene an international conference on the fate of the Earth and humankind. It started in 1972 with a Conference on the Humane Environment in Stockholm, followed by the 1992 Rio Earth Summit and the 2002 World Summit on Sustainable Development in Johannesburg, South Africa. Heads of State and Government met again in Rio in June, 2012 for Rio+20, the UN Conference on Sustainable Development.

As all environmental indicators "in the red"[1], there was great expectation before this latest Earth Summit. UN Secretary General Ban Ki-moon said it was "a one-time-in-a-generation opportunity". 50,000 representatives of civil society organizations, including representatives of NGOs, trade unions, indigenous peoples, artisanal fishers and farmers, as well as private corporations and local authorities all came to Rio with various and sometimes contradictory demands. In these circumstances, a feeling of disappointment was almost inevitable. The Rio+20 declaration adopted by the summit is thought to lack ambitions. It's called "The Future we Want[2]" but the majority of participants thought that it wasn't the future we need.

I understand and share the frustrations – especially from those who attended for the first time and from the youth groups. But despite its shortcomings, there's a lot to build from in the 49 pages of "The Future we Want". Here are just a few examples:

- A set of Sustainable Development Goals (SDGs) will be developed and launched before 2015. We must push the envelope to make sure that the SDGs deliver the future we need.
- The UN was given a mandate to develop a ten-year Action Programme on Sustainable Production and Consumption something that the two President Bush had fiercely opposed at Rio 92 and Johannesburg 02 respectively. Future will tell if this programme will be significant, but clearly Bush & Bush thought it could be, otherwise they would not have opposed it so forcefully.
- The section on Oceans and Seas contains important commitments to respect science-based management, eliminate subsidies that contribute to overfishing and fleets overcapacity, to combat illegal fishing, and to guarantee access to fishing resources to small-scale artisanal fishers.
- Also on Ocean, there was no agreement to launch immediately negotiations for an international instrument for high seas biodiversity conservation (the areas beyond national jurisdiction that represent 45% of the surface of the planet and are subject to Wild West grab), but the importance of this issue is emphasized and it was agreed to consider the development of this agreement in two years and a half.
- It was also agreed that it is wrong to measure wealth and well-being just on the basis of countries' Gross National Products; potentially this could be what the History books our grand-children will read may remember of the Rio+20 Summit.

A metamorphosis takes more time than a revolution. But maybe it will have more lasting effects.

[1] See UNEP's Global Environment Outlook GEO 5, June, 2012: http://www.unep.org/geo/geo5.asp
[2] "The Future we Want" is available at: http://uncsd2012.org/thefuturewewant.html

Recrea Proiektua

Rosa Sensat Maisu Elkartearen ekimen honen helburua erabiltzen ez diren materialen birziklapen sortzailea suztatzea da. Helburu horrekin, elkarteak hainbat bitarteko eskaintzen dizkie eskola, tailer eta bestelako hezkuntza-entitateei, ikasleentzat jarduera aberasgarria sustatzeko, objektuak alferrik galtzea eragozteko eta komunikazio- eta sormen-aukera berriak eskura jartzeko. Proposamen hezitzaile, ekologiko eta ekonomikoa da, eta kulturaren eta eskolaren mundua enpresarekin harremanetan jartzea bilatzen du, Itxuraz baliorik ez duten elementuen birziklapenaren bidez.

Ekimenaren sustatzaileek, alde batetik, material berezien bidez sorkuntza sustatzea, eta, bestetik, irakasleen prestakuntza eta eguneratzea laguntzea lortu nahi dute.

www.rosasensat.org

HONDAKIN JAIALDIA, ZABORRAK BERRERABILTZEKO

Iaz gertatu zen bezala eta ekimenak izandako arrakasta ikusita, Alhondiga Bilbaok bat egingo du datorren azaroan Hondakinen Prebentziorako Europar Astearekin, Hondakin izeneko Berrerabilpen Sortzailearen Jaialdiaren bidez.

HONDAKIN
Festival de reutilización creativa
del 21 al 27 de Noviembre

Diziplina anitzeko ekimen horrek tailerrak, txostenak, trukerako eta topaketarako leku bat, musika-emanaldiak eta antzerki-ikuskizunak proposatzen dizkie parte hartu nahi dutenei, zaborra (materiala zein ez-materiala) berrerabiltzeko hainbat bide erakusteko. Programa horren bidez, ingurumena errespetatzen duten jarduerak bultzatu nahi dituzte jendartean.

http://www.alhondigabilbao.com/web/guest/795

Dekorazio Naturala

Zurezko enborrak eta bestelako material naturalak gero eta ugariagoak dira edozein estilotako etxeak egiteko, baita landetxe-izendapena ez dutenetan ere. Oso kostu merkea dute eta, praktika eta sormen pixka bat edukita, oso diseinu interesgarriak landu daitezke, ondoko estekak eramango gaituen blogak erakusten digun bezala. Egileek diotenez, "dekorazioa egitean, irudimena eta sormena dira garrantzitsuenak. Horren ostean, teknikak, errazak zein konplexuak, erantsi daitezke".

http://19bis.com/objectbis/2009/10/17/decoracion-natural/troncos-para-decorar-la-casa/

Pink gorillas

Diziplinarteko gizarte-eragile horiek bultzada erabakigarria eman nahi diote sormenari gizartean, bai pertsonengan, bai espazioetan. Esperientzia bereziak eta asaldatzaileak sustatu nahi dituzte, herritarren eguneroko bizitza etengabe hobetzeko. Haien jarduera-eremuak sormena, hezkuntza, kultura- eta gizarte-garapena, pertsona arteko harremanak eta gizarte-berrikuntza dira. Formula propioen gaineko ikerketaren bidez barne-grinak piztu nahi dituzte, eguneroko bizimodua asaldatzeko eta une bakoitzari duen onena ateratzeko.
Erabili ohi dituzten sistemen artean, honako hauek ditugu: "Fast think breakers" (gosari formatuko topaketak), "SchoOLD" (astebeterako telebista-programa bat diseinatzea, eskolako eguneroko bizitza hobetzeko ideia berriak emateko) edo "Explot" (Ekiten Ikastea programaren egokitzapena, agertoki sortzaile baterako).

http://www.wearepinkgorillas.com/

Publizitate-sormen positiboa

Greenpeaceren 100 iragarkirik onenak

Ingurumena babesteko sortutako erakunde horrek hogeita hamargarren urteurrena ospatzen duela eta, creadictos.com webguneak sarrera bat argitaratu du, Greenpeacek egindako ehun publizitate-ekintzarik onenak erakusteko. Iragarki hunkigarriak dira, eta estrategiak funtzionatzen duela frogatzen dute: mezua helarazteaz gain, inspirazio- eta sormen-iturri dira. Irudien bidez egiazta dezakegunez, erakundearen publizitateak baztertu egiten ditu ideia jasoak eta minimalismo sortzailea hobesten du. Horri esker, berezitasun handia lortzen du.

Nahiz eta Greenpeacek iragarkietan inbertsiorik ez egin, aukeratutako ehun iragarkietan munduko agentziarik ospetsuenetako batzuek egindako kanpainak aurki ditzakegu. Izan ere, enpresek berek erabakitzen dute lan horietan parte hartzea, beren ideiarik onenak erakusteko, korporazio-onarpena lortzeko, jaialdietan sariak lortzeko.... Hitz batean, beren buruarentzako publizitatea egiteko.

http://www.creadictos.com/100-mejores-publicidades-de-greenpeace/

Itsasoko agurrak

Euskadiko Biodibertsitate Zentroak eta Skeleton Sea taldeak "Itsasoko Agurrak" ekimena jarri zuten abian iragan apirilean. Ekimen bikoitza da: batetik, hondartzak garbitzeko jarduera, eta, bestetik, jasotako hondakinekin lore sortak egiteko tailer sortzailea hartzen ditu barne. Hala, ostiral-arratsalde batean ibilaldia egin zuten hondartza batean, oraingoan Busturian. Ondoren, asteburuan, tailerra burutu zuten. Egindako lanak zentroan jarri zituzten ikusgai, gainera. Edozein egoera eta ingurutara egoki daiteken esperientzia dugu, eta mesedegarria da bai sormenarentzat bai ingurumenarentzat, hau da, Ihitzaren zenbaki honetan hizpide ditugun bi helbururentzat.

www.torremadariaga.net

LAS BUENAS PRÁCTICAS TIENEN PREMIO

Los padres y madres del instituto Kurtzebarri BHI de Aretxabaleta son un ejemplo de fomento de las actividades lúdicas y creativas para el alumnado. A través de la asociación Batera, el grupo ha sido reconocido por EHIGE en el primer concurso de buenas prácticas gracias al trabajo titulado 'Concurso de ideas de viaje y viaje escolar para todo el alumnado'.

Anualmente y durante muchos cursos este colectivo organizó un fin de semana anual de esquí, una actividad muy apreciada en el centro pero que comenzó a convertirse en inercia. Para evitar ésto y con el fin de implicar al alumnado en la organización de la iniciativa, y atendiendo, cómo no, a la situación económica (la salida a esquiar resultaba demasiado cara), en el curso 2009-2012 se convocó el primer concurso de ideas para el viaje escolar. Dirigido a todo el alumnado de Educación Secundaria, el certamen impondría unas bases entre las que se encontraría un techo de gasto y entre las propuestas presentadas se elegiría la campeona del concurso. Ésta sería, además, el viaje elegido para llevar a cabo por todo el alumnado. Como premio, el grupo ganador tendría la posibilidad de disfrutar de esta escapada de manera gratuita.

Debido al éxito de la convocatoria a la que año tras año se presenta un mayor número de propuestas, en los últimos años la comunidad escolar de Kurtzebarri BHI ha tenido la oportunidad de realizar el conocido descenso del Sella o de llevar a cabo un fin de semana de surf en la localidad asturiana de Salinas.

Objetivos de la iniciativa

Fomentar la participación del alumnado en la vida colectiva del centro. Un valor fundamental en una sociedad democrática que le acostumbrará a tomar parte en la vida social y en sus decisiones.

Implicación en la organización de actos: Les permitirá ser quien diseñe la actividad (cómo será, qué se hará, etc.) teniendo siempre en cuenta sus propios gustos y preferencias.

Participación en todas las fases del proyecto: desde la elaboración de la idea hasta encontrar un contenido cultural, organizar la logística, adecuarse al presupuesto, etc.

Preocuparse del coste económico de la actividad: el hecho que desde la infancia hayan recibido todo lo necesario de manos de sus progenitores puede hacer que a menudo no valoren su coste. El concurso les obligará a trabajar bajo un presupuesto máximo establecido previamente.

Desarrollo del concurso

1. Numerar los sobres de las propuestas y todas sus hojas para poderlas identificar durante todo el proceso. Hacer las fotocopias necesarias para todos los miembros del jurado.

2. Primer filtro: corrección formal. Analizar si los trabajos se han presentado en el formato y condiciones requeridas, si se han desarrollado todos los apartados de las bases y descartar aquellas propuestas que las incumplan.

3. Segundo filtro: fiabilidad. Comprobar que todos los datos sean verídicos (se llama a los lugares elegidos, se visitan las páginas webs, se comprueban precios, disponibilidades, etc.)

4. Tercer filtro: idoneidad de la propuesta. Valorar la idoneidad de los contenidos (actividades activas, constructivas, sostenibles, saludables...) y la dificultad de su organización (que sea una actividad viable para la asociación Batera).

5. Opinión general: Distribuir copias de las propuestas que han superado las fases anteriores entre la comisión de alumnado y profesorado. Estas opiniones se tendrán en cuenta para la toma de la decisión final aunque no serán vinculantes.

Bilboko Arte Ederren Museoa

Artearen eta ingurumenaren arteko konbinazioa

Bilboko Arte Ederren Museoak zortzi mila artelan baino gehiago ditu bere bilduman, pinturak, eskulturak, paper gaineko obrak eta arte aplikatuak barne hartuta. Ondare multzo nabaria da inondik ere, eta bere kronologia XII. mendetik hona luzatzen da. Museoak antzinako artearen, arte modernoaren eta garaikidearen erakusgarri nabarmenak ditu, eta bereziki interesgarria da espainiar eta flandestar eskoletako pintura, baita euskal artisten presentzia zabala ere. Izan ere, euskal artisten artelanez osatutako bildumarik handiena du eta, ildo horretan, erreferentziazko erakundea dugu bere funts dokumentalengatik, ikertzeko tradizioagatik eta artistenganako hurbiltasunagatik.

Bilboko Arte Ederren Museoa

Museo Plaza, 2. 48009 BILBO
Tlf. 94 439 60 60
Fax. 94 439 61 15
@museobilbao.com

Era berean, hainbat eskola-programa garatzen ditu, hezkuntza-sistemako maila guztiei erantzuna emateko xedez. Hezkuntza-tresna horiek artelanekiko elkarrizketa eta gogoeta ahalbidetzen dituzte, eta, gainera, ikasleek gizarte-trebetasunak garatzeko eta ezagutzak eskuratzeko bitarteko egokia dira.

Doako programa horiek euskaraz, gazteleraz eta, gehienetan, ingelesez ere eskaintzen dira, eta irakasleek landu nahi dituzten gaiak erantsi daitezke. Hala eskatuz gero, departamentuko pertsonalak lanari ekingo dio.

Hezkuntza-mailaren arabera, hona hemen Lehen Hezkuntzak ikasleei eskainitako programak: "Museoan zehar, "Koloreetako museoa", "Izaki fantastikoak", "Animaliak museoan", "Elikagaiak artean", "Kontaktu-ibilbidea" eta "Ura museoan". Azken programa horrek lotura estua du Eskolako Agenda 21ekin eta ingurumen-hezkuntzaren eta garapen iraunkorraren hobekuntzarekin. Museoko hezitzaileak iruzkindutako bisita da eta bildumako obra nagusiak hartzen ditu barne. Horrela, Lehen Hezkuntzako bigarren eta hirugarren mailako ikasleek ikus dezakete urak nolako presentzia eta garrantzia dituen gure bizitzan.

Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasleentzat, honako ibilbide hauek eskaintzen ditu museoak: "Sarrera-ibilbidea", "Oinarrizko ibilbidea", "Hondakinak" eta "Europa Bilboko Arte Ederren Museoan". "Hondakinak" ibilbidean zehar, ikasleek gogoeta eta eztabaida egin dezakete: erabilera jakin batekin sortutako material asko artearen esparruan nola erabil daitezkeen. Horren emaitza museoko zenbait artelanetan ikus dezakete, gainera.

Programa batzuetan, museoko hezitzaileak lagundu egiten die ikasleei; beste batzuetan, irakasleek berek bideratzen dute bisitaldia, hala nola, "Museoan zehar", "Kontaktu-ibilbidea", "Sarrera-ibilbidea", "Oinarrizko ibilbidea" eta "Antzinako pintura" izeneko ibilbideetan. Bestalde, ikusmen-desgaitasunak dituzten ikasleek tailer-bisita egin dezakete. Taldearen mailaren araberako ibilbideaz gain, ukimenezko esperimentazio-eremua edo gune haptikoa dute aukeran.

UNITATE DIDAKTIKOAK

Nire sormena aprobetxatzen dut

Ondoko estekaren bidez eskuragarri dagoen lehen unitate didaktikoaren helburua hauxe da: ezohiko materialek eskola-umeen sormena lantzeko eskaintzen dituzten aukera ugariak erakustea. Unitateak bost saio garatzen ditu, ikasleen trebetasun motorrak era ludikoan lantzeko, material alternatiboez egindako jolasen bidez. Gorputz Hezkuntzako klaseetan egitekoak dira jolas horiek.

Bigarren unitateak, berriz, ikasleak beraiek sortutako elementuen munduan barneratzea du helburu. Edonoiz eta edonon eskura daitezkeen materialak dira, eta haur txikiengan espiritu sortzailea eta irudimena sustatzeko aukera ematen dute, betiere ingurumenarekiko errespetua oinarri hartuta.

http://www.efdeportes.com/efd155/unidad-didactica-aprovecho-mi-creatividad.htm

http://www.efdeportes.com/efd140/unidad-didactica-creamos-nuestros-materiales.htm

Sormena garatzeko teknikak

Neuronilla.com webguneak ideien produkzioa sustatzeko gehien erabiltzen diren tekniken zerrenda eskaintzen digu, ondoko estekan. Parte-hartzaileek gaitasun sortzaileak garatzeko balio dute prozesu horiek. Gehienak taldean lantzeko pentsatuta daude eta oso egokiak dira ikasgelan edo ikasle-taldeetan erabiltzeko, baina badira ikasleek banaka erabiltzeko modukoak ere.

Aurkeztutako tekniken artean, Ihitzaren zenbaki honetan proposatzen ditugun jardueretan erabilitako batzuk daude, hala nola, “brainstorminga” edo ideia-jasa edo “Pentsatzeko sei kapelak”, baita hainbat eta hainbat adibide ere.

http://www.neuronilla.com/desarrolla-tu-creatividad/tecnicas-de-creatividad

BIDEOAK

Lip dub

Azken garai honetan, musika-bideoan oinarritutako ikus-entzunezko teknika bat dago modan. Horretan, lagun-talde batek ezpainak, keinuak eta mugimenduak kanta ezagunen musikarekin eta letrarekin sinkronizatzen ditu eta hartualdi bakar batean grabatzen da. Lip dub izena du eta bi euskal ikastetxetan badakite zer den bideo horietako bat errodatzea. Muskizeko Somorrostro BHIP eta Muxikako Urretxindorra HLHI dira. Bideo horiek lantzeko, bi ikastetxeetako langile eta ikasle guztien laguntza behar izan dute. Bi lan horietaz gozatzeko estekak dituzue jarraian.

http://www.youtube.com/watch?v=ynZfMDKgl_s

http://www.youtube.com/watch?v=NrmOdUgF_yI&feature=youtu.be

Ikaskomunitateak

Lekeitio Eskolak, bideo honetan, Ikaskomunitate programan parte hartzeko era berritzailea erakutsi digu. Esperientzia horren bidez, ikastetxeko hierarkiari buelta eman nahi izan diote: ikasleek, senideek eta gizarte-eragileek zuzentzen dituzte eskola, arauak etab., irakasleekin batera. Hala, kolektibo guztiek berdintasunez parte hartzea bilatzen dute, eta, horretarako, hezkuntza-estrategia berriak erabiltzen dituzte, hala nola, talde interaktiboak. Horien arabera, Lehen Hezkuntzako (kasu honetan) lehen eta bigarren mailako gela bakoitza bospasei ikaslez osatutako taldeetan banatzen da, eta talde horietako bakoitza Bigarren Hezkuntzako edo Batxilergoko azken mailetako ikasle batek koordinatzen du, oinarrizko gaitasunak lantzeko: esaterako, irakurmena edo kalkulua.

Estrategia hori eta beste batzuk azaltzen dira ondoko bideo honetan.

http://www.youtube.com/watch?v=-USAbL4-Vsk

LIBURUAK

Niños creativos, enseñanza imaginativa

Beetlestone, F.

La Muralla, 2004 (184 or.)

Pedagogiaren testuinguruan, sormenaren kontzeptua osatzen duten elementu guztiak aztertzen ditu egileak liburu horretan. Irakasleei gogoeta egiteko material egokia eta pertzepzioak eta sinesmenak zehazteko laguntza teorikoa eta praktikoa eskaini nahi izan dizkie. Liburuaren orrietan arreta berezia jartzen da kolektibo guztien curriculum-esperientziak aberastean, ikasleen, irakasleen eta Lehen Hezkuntzaren testuinguruaren arteko erlazioa aintzat hartuz eta, era berean, curriculum-esparruan barne hartuz.

Motivación y creatividad en clase

Thorne, K.

Graó 2008 (160 or.)

Sormena ikasgelan erabiltzeak komunitatearentzat sekulako garrantzia duela nabarmendu du Kyle Thornek liburu horretan. Haren hitzean, sormena funtsezkoa da gizakiaren bizitzan: pertsona gisa hazteko eta ahalmen soziala garatzeko aukera ematen dio. Egileak liburuaren orrietan dioenez, sormenik gabe ez dago aurrerapenik, ideia zoro eta harrigarriak bururatzen zaizkien pertsonak beharrezkoak baitira. Ulertu behar dugu eskolak eskainitako pertsonak enplegatzen dituela lan-munduak. Belaunaldi batzuetako gazteak axolagabeak dira berrikuntzen aurrean eta ez dira beren kabuz pentsatzeko gauza; sor litezkeen beste belaunaldi batzuetakoak, ostera, pentsamendu konplexuei aurre egiteko gai dira. Eraldaketa hori gauzatzeko ezinbesteko tresnak eskaintzen ditu liburuak.

WEB ORRIAK

Creatividad social

Disenuari, sormenari eta kultura-kudeaketari lotutako gizarte-ekimenen plataforma da. Arduradunek diotenez, ideiaz osatutako kutxa bat da, eta hainbat esparrutan gara daiteke: erakunde publiko baten jarduera-programa, enpresa baten gizarte-erantzukizun korporatiboko neurria eta baita familia edo kolektibo batek asmatua ere izan daiteke. Laburtuta, ideia onak guztion onuraren zerbitzuan jartzeko asmoa da.

http://creatividad-social.blogspot.com.es/

JOKOAK

Neuronilla-com webguneak lineako joko sorta eskaintzen digu, nahi duenak bere sormena gara dezan. Jolaserako tarte erraz eta dibertigarrien bidez, norberak ideia hobeak izateko gaitasuna trebatzeko aukera du. Hainbat aukera eskaintzen ditu: “ficcionario” izenekoa; hitz, lapitz, zotz eta pospoloekin egiten diren jolasak; asmakizunak; eta erronka sortzaileak.

http://www.neuronilla.com/desarrolla-tu-creatividad/juegos

40. zenbakia prestatzen ari gara. **Gaia:** Eskola baratza

ingurugela Ingurumen Hezkuntza zure eskura

Bilbao
Ondarroa, 2
48004 Bilbao
944 11 49 99
ceida-bilbao@ej-gv.es

Donostia-San Sebastián
Basotxiki, 5
20005 Donostia-San Sebastián
943 32 18 59
ceida-donosti@ej-gv.es

Legazpi
Brinkola, z/g
20220 Legazpi
943 73 16 97
ceida-legazpi@ej-gv.es

Vitoria-Gasteiz
Baiona, 56-58
01010 Vitoria-Gasteiz
945 17 90 30
ceida-vitoria@ej-gv.es

Todos los números de
ihitza
ren zenbaki guztiak
www.euskadi.net/ihitza

Eusko Jaurlaritzaren Aritalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

EUSKO JAURLARITZA
HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA
INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, AGRICULTURA Y PESCA